

Lehendakaria izendatzeko eztabaida

2001eko uztailak 11

I.- Aurkezpena.

Legebiltzarreko lehendakari jauna, Legebiltzarkideok, jaun/andreok, egun on guzti-guztiori.

Ohore bat da niretzat, maiatzaren 13an izan genituen hauteskunderen ondoren berritutako Ganbera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari izateko nire kandidatura aurkeztea. Inbestidura-ekitaldi honetako aurkezpena zuen iritzietara jarri nahiko nituzkeen programa baten eta konpromiso batzuetan oinarritzen da.

Programa bat eta konpromiso batzuk gizarte plural honek dituen behar eta itzaropenei erantzuna emateko –gizarte plurala, hauteskundeak horrela baieztatu baitute–, baina, sentsibilitate politiko desberdinetik harantzago guztiok kide garen sentimenduaren inguruan batua eta helburu batekin: Bakea eta gure Herrirako erabateko elkarbizitza lortzea.

Horregatik, eta euskal biztanleei hemen ordezkatzeko aukera politikoak aukeratzeagatik zor zaien errespetua erabiliz, **etorkizunerako programa bat aurkeztu nahi dut Legebiltzar honetan, ez ateak ixteko programa bat, bideak urratzeko programa baizik.** Ez proiektuak inposatzeko, ez, printzipioak konpartitzeko baizik.

Horrela bada, gure gizartearen arazoak gainditzeko Jaurlaritzaren jarduna bideratuko duten konpromisoak azaldu nahi ditut, Legebiltzar honen kide gehienen babesa izango dudalakoan.

Nire helburua –eta guztiona ere hori delakoan nago– ez da zatiketa politikoa areagotzea, edo Euskadi gobernatzeko Legebiltzarreko gehiengoak eta gutxiengoak erabiltzea, baizik eta inor kanpoan utzi gabe etorkizuna eraikitzea guztion artean.

Horregatik, eta ni lehendakari izendatzeak izan ditzakeen aldeko zuzenak alde batera utzita, aurreratu nahi dizuet garai berri bati ekiteko asmoa

dudala eta garai berri horretan norgehiagoka alde batera utzita elkarrizketa izango dela nagusi euskal gizartearengandik legitimotasun demokratikoa jaso duten alderdi politiko guztien artean.

Lehenera ekarri behar dugu guztion artean gure iraganeko jokabideek galarazitako konfiantza politiko eta pertsonala.

Egoerak eskatzen digunari erantzun nahi badiogu, ordezkari politikook distentsioa, konfiantza eta normaltasuna berreskuratu behar ditugu gure harremanetan, etorkizunean euskal gizarteak dituen arazoei eta erronkei aurre egiteko egoki.

Legegintzaldi honetan gauza izan behar dugu gizarte integratu eta kohesionatua eratzeko, European ongizatearen eta elkartasunaren erreferente izango dena, eta horretaz gain Bakea eta elkarbizitza lortu dituen.

Iraganean ekonomia eta gizarte mailako beste desafio batzuk gainditu baditugu, ezin dugu etsi beste hogeita hamar urtetan heriotza eta hilketaren atzaparkada ikaragarri eta dramatikoak jasanez.

Gure gizarteko ekonomia, teknologia eta kultura etengabe bilakatzen ari den mundu batera egokitzeko gure nerbioa, bizitasuna eta ausardia frogatu badugu urte askotan zehar, “euskal arazoa” deiturikoa konpontzeko gai izan behar dugu.

Konpromiso hori jarri du gure gain euskal gizarteak, eta lehenbailehen eman behar diogu erantzuna konpromiso horri.

Hilketa berri bakoitza, indarkeria ekintza bakoitza, askatasuna eta pertsonen seguritatearen aurkako eraso berri bakoitza gizartearen kontzientzian gaztigua da; gizarteak, indarkeriaz gogaituta, ETaren zentzugabekeria erabat arbuiatzen du eta ordezkari politikooi biktimekiko batasuna eta elkartasuna adierazteaz gain, erantzunak eta konponbideak eskatzen dizkigu, heriotza, min eta sufrimendu gehiago izan ez dadin.

Hori da gure erantzukizuna, eta erantzukizun horren aurrean ni ez nago prest beste aldera begiratzeko, ez nago prest ez etsitzeko ezta atzera begiratzeko.

Berriz gerta ez daitezen beharrezkoa da iraganeko hanka-sartzeetatik ikastea, baina beti etorkizunera begira, beti aurrera begira. Hori da animatzen nauen helburua eta hori praktikan jartzeko asmoa dut, Legebiltzar honen gehiengoa alde badut.

Ikas dezagun, beraz, iraganetik, azter dezagun egindako bidea, baina balia gaitzen euskal gizarteak etorkizuna eraikitzeke eskaini digun aukera berriaz.

Atal hauetan, hain zuzen, banatuko dut Lehendakaria izendatze-ekitaldi honetan egingo dudan hitzaldiaren edukia.

Lehenengo eta behin, *egindako bidea* eta aurreko legegintzaldiko esperientzia *aztertuko* dut.

Bigarrenik, duela gutxi izan diren hauteskondeek eskaini diguten *aukera berriaz* gogoeta egingo dut.

Eta hirugarrenik, *etorkizuna eraikitzeke*, niri iritziz, behar diren konpromisoak, jarduera ardatzak eta zutabeak zehaztuko ditut.

Azken finean, bizitzaren, elkarrizketaren, errespetuaren eta elkartasunaren kontzeptuei edukia ematea da, horiexek izan baitziren Kursaal-en aurkeztu nuen konpromisoaren oinarriak eta maiatzaren 13 euskal gizarteak abalatu zuen hauteskunde programarenak.

Horixe da aurkeztuko dizuedan programaren helburua.

II.- Egindako bidea. Iraganeko esperientzia.

Hau ez da gaitzespenak adierazteko atala, iraganetik ikasteko konpartitu behar ditugun esperientziak adierazteko atala baizik.

1999ko urtarrilean aurreko Jaurilaritza eratu zenetik hona denbora luzea igaro dela ematen badu ere, gogoan hartu behar dugu aurreko legegintzaldiak erabat bestelako agertokia izan zuela oraingoaren aldean.

Aspaldian lehenengo aldiz bake prozesu hasiberri baten lan egiteko aukera izan genuen, baina, tamalez, itxaropen hori zapuztu egin zen.

ETAk, 14 hilabete iragan ondoren, su-etena bertan behera uztea erabaki zuen, eta horrela Euskal Herriko biztanle gehienek ilusioa eta itxaropena zapuztu zituen, baita Euskal Herritarrok-en militanteena ere.

ETA izan zen, bere paranoian, gure Herriari zorigaitza, bidegabekeria eta heriotza ekarri dion erabaki horren errudun bakarra.

Agian, ETAk bere proiektua inposatzeko erabili zuen su etena, etorkizunari buruz hartu beharreko erabakiak alderdi politikoen eta euskal gizartearen beraren eskuetan utzi beharrean.

Beharbada ez genuen jakin bake prozesuari ondoen lagunduko zioten baretze, leuntze eta elkartze keinuak gauzatzeko.

Agian, nik neuk ere ez nuen jakin alderdi politikoen baldintzatzaileak behar bezala ulertzen, eta uste izan nuen, gizarteak nahi zuen bezala, bide bat zegoela harriak baino ez zeuden tokian.

Beharbada, Espainiako Gobernuaren eta ETAren arteko bitartekari izan zenak esan zuen bezala, su-etena batzuen pazientzia ezagatik eta besteen zorrotasunagatik geratu zen ezerezean.

Erantzun gabeko galderak ugariak dira. Ziurrenik, azalpen guzti horiek egiaren zati bat izango dute. Ziurrenik, baita ere, ez da denbora nahikoa igaro aukera horretaz baliatzea eragotzi zuten arrazoiak inolako grinarik gabe aztertzeko.

Edozein modutan, bitxia izan daiteke, baina uste dut Nazio Askapenerako Euskal Mugimenduaren barruan pizten ari den eztabaida ezinezkoa izango zela su-eten hura izan ez balitz. Uste dut, baita ere, izandako hilketa eta basakeriez gain, su-etena hausteko ETA bere erabakiaren

gatibu bilakatu duela. Uste dut, azken finean, denbora ez dela alferrik igaro inorentzat.

Honako hau esaten zuen EHk duela gutxi: *"begi bistakoa da euskal gizartearen gehiengoa ez datorrela bat ETArekin borroka armatuarekin."* Iritzi berberekoa naiz ni ere.

Arrazoi etiko, politikoak eta moralak alde batera utzita, zer da ETA bezalako erakunde bati legitimotasun sozial gehien kentzen diona? ETAk Euskal Herria defendatzen duela esan arren, Euskal Herriaren borondatearen kontra egiten duela.

Hauxe da atera behar dugun lehenengo esperientzia, eta argi adierazi behar dioguna ETARI: indarkeriarik gabeko beste agertoki bat ez da sinesgarria izango, ETAk euskal gizartearen borondatea errespetatzeko konpromisoa hartzen ez badu eta Herri honen biztanleei bere proiektua indarrez ezartzeari uko egiten ez badio.

Euskal alderdi politikook ere garai horretako gure esperientziak atera behar ditugu.

Lehenago esan dudan bezala, ziur nago azterketa lasaia egiteko urte batzuk igaro beharko dutela, baina ondorio bat aurreratzera ausartzen naiz, begi bistakoa izan arren, sakon-sakona dena: **su-etenaren egoera ez zen sendotu distentsio eta elkarrizketaren aldeko politikaren bitartez.**

Alderantziz, euskal gizarteak lehen aldiz bizi zuen bakealdi bat, bakealdi osoa ez bazen ere, heriotzarik eta hilketarik gabekoa zena. Eta euskal gizarteak txundituta ikusi zuen inoiz ez bezalako norgehiagoka politikoan ari ginela.

Elkarrizketak beldurra sortu zuen!

Elkarrizketarekiko beldur hark mesfidantzara eraman gintuen lehenengo eta norgehiagokara gero.

Su-etenaren garaian harremanetarako zubi guztiak suntsitu genituen eta gero ez ginen gauza izan zubi horiek berriro eraikitzeko, gizartearen gehiengo zabalak lasaitasuna, kohesioa eta batasuna eskatzen bazigun ere indarkeria berriro agertu zenean.

Alde batetik, legez kontrako indarkeriaren presio anker eta lazgarriak eta, bestetik, norgehiagokak eta elkarrizketa ezak tentsio izugarria ezarri

zioten politikaren eta gizartearen egoerari eta aurrera egiteko edozein aukera zapuztu zuten.

Lehendakaria nintzenez, buru-belarri aritu nintzen alderdi politikoei zentzutasuna eskatuz normaltasuna berreskuratzeko gure harremanetan, baina ez zen posible izan.

Beraz, nire erantzunkizuna onartu eta euskal gizartera jo nuen norgehiagoka politikoa desblokeatzeko, norgehiagoka politikoa gizartera bertara hedatzeko arriskua baitzegoen.

III.- Oraingo egoera. Aukera berri bat.

Euskal gizarteak zentzuz eta sen onez erantzun zuen maiatzaren 13an. Berriro ere, parte hartze demokratikoaren, sosegua, aniztasunaren eta heldutasunaren eredu izan zen euskal gizartea. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiot euskal gizarteari Legebiltzar honetan.

Hitz egin du euskal gizarteak. Euskal gizartearen hitza eta erabakia errespetatu baino ez dugu egin behar. **Ziur nago horixe dela konponbidea: euskal gizartearen borondatea errespetatzea.**

Tentagarria bada ere, ez ditut saria eta zigorra hitzak erabiliko emaitzat ulertzeko. Aurreko estrategiak onesteko edo gaitzesteko hitzak ere ez ditut erabiliko horretarako. Ezta zenbait proiektu politikoren aldeko hitzak ere, ez horixe! Hementxe dugu Legebiltzarra nola osatuta dagoen, eta horrexek adierazten du ondoen gure gizarteak duen iritzia, nire hitzek baino askoz egokiago adierazi ere.

Maiatzaren 13ko hauteskundeak izan ondoren, garai berri bat dugu aurrez aurre, aukera berri bat, itxaropenerako ate bat. Ezin diegu huts egin euskal biztanleei, euskal biztanleek konfiantza osoa ezarri baitute guregan erantzunak eman ditzagun eta konponbideak aurki ditzagun, ez arazoak sor ditzagun.

Horregatik, Legebiltzar honetan ordezkaturako proiektu politikoen gainetik, uste dut nire eginbeharra eta nire erantzunkizuna dela euskal gizartearen gehiengo zabalak igorri digun mezu demokratikoa ulertzeko

honako hitz hauek erabiltzea: *helburuak, printzipioak, jarrerak eta konponbiderako prozedurak.*

Nire ustez, mezu argiak izan dira. Beste lehentasun batzuen gainetik, **euskal gizartearen** gehiengo zabalak

- **helburu nagusi bat** du:
 - Bakea nahi du. Normalizazio politikoa nahi du. Elkarbizitza nahi du.
- **printzipio batzuen** alde egiten du:
 - indarkeria-ezaren eta elkarrizketaren alde, binomio banaezin horren bitartez helburu horiek lortzeko.
- **jarrera batzuk** defendatzen ditu:
 - elkar ulertzearen kultura, norgehiagokaren kulturaren orde.
 - gizartea integratzea, bi taldetan banatzeko estrategiaren orde.
- **konponbiderako prozedura** bat onartzen du, **errespetua**:
 - errespetua gure izaerari, gure nortasunari.
 - errespetua ideia aniztasunari.
 - errespetua eratu ditugun erakundeei
 - errespetua, azken finean, euskal gizartearen borondateari: iraganean hartu ditugun erabakiei nahiz etorkizunean har ditzakegunei, alegia.

Helburu, printzipio, jarrera eta prozedura horiexek gidatuko dute nire jardunbide politiko eta pertsona legegintzaldi honetan, aurrekoetan bezala.

Horien gainean konpromiso batzuk eraikiko ditut, Jaurlaritzaren eta Jaurlaritza horri laguntza ematen dioten politika eta gestio programaren ardatz izango direnak hurrengo legegintzaldian.

Nik horiei “etorkizuna eraikitzeako konpromisoak” deitu diet eta horiexek eratzen dute nire **hitzarmen politiko eta pertsonala euskal gizartearekiko.**

IV.- Etorkizuna eraikitzeako konpromisoak:

Garai berri bati ekin diogu. Ziur nago aukera berri bat izango dugula eta huts egiteko beldurrik gabe egin behar diogu aurre aukera horri. Huts egiteko beldur diren gizarte eta herriek huts egiten dute azkenean.

Nik uste osoa dut euskal gizartean. Nik uste osoa dut aukeretan; horregatik, buru-belarri, zintzotasunez arituko naiz. Baiezkoa emango diet euskal gizartearen eskariei eta irrikeri, eta horretarako honako lau konpromiso hauek gauzatuko ditut, Jaurlaritzaren politika eta gestio ekimenen giltzarri izango direnak hurrengo legegintzaldian:

- 1.- **Konpromiso etikoa**, pertsona guztien bizitza, giza eskubideak eta askatasuna defendatzeko.
- 2.- **Konpromiso politikoa**, elkarrizketa erabiliz Bakea eta elkarbizitza lortzeko.
- 3.- **Konpromiso demokratikoa**, euskal biztaleen erabakiak errespetatzeko.
- 4.- **Konpromiso soziala**, euskal gizarte orekatuagoa eta solidarioagoa eraikitzeko.

Lau konpromiso handi horiek Legebiltzark honetan dauden alderdi politiko guztiekin konpartitu nahi ditut.

Nire asmoa politika irekia, integratzailea, eta gizarte osoarentzat garatzea da.

Euskadiren etorkizuna dugu jokoan. Etorkizuna hori zehazteko inor ez dago sobera. Denok lagundu behar dugu, bakoitzak osatzen dituen gehiengoak edo gutxiengoak gaindituz.

Ikas dezagun iraganetik, ez dezagun iragana ahaztu, baina eskuzabaltasuna eta ikuspegi zabala erabiliz egin diezaiogun aurre etorkizunari.

Jarraian, etorkizuna eraikitzeko lau konpromiso azalduko ditut, hain zuzen ere, euskal gizartearekin hartu dudak konpromiso pertsonal eta politikoa osatzen dutenak.

IV. 1.- Pertsona guztien bizitza, giza eskubide eta askatasunarekiko konpromiso etikoa.

Atal hau hasi nahi dut indarkeria terroristaren biktima izan direnen familia guztiak –eta batik bat, suetena bukatu zenetik ETAK hil dituen 31 pertsonen familiak– gogoraraziz. Hemendik, beraien mina eta sufrimenduarekin bat egin nahi dut eta nire elkartasun pertsonala eta euskal Erakundeena adierazi nahi diet. Zentzu honetan, aipamen berezi bat egin nahi diot Fernando Buesari, aurreko legegintzaldiko

Legebiltzarrean lankide eta Alderdi Sozialistaren bozemaile izan zen baikenuen.

Gure Herriaren etorkizuna ezin da heriotza, hilketa eta pertsonen zapalketan oinarritu.

Bizitza ondasun goren eta oinarrizkoena da. Inork ez du inongo arrazoirik bizitza mozteko, eta are gutxiago Euskal Herriaren izenean.

Konpromiso etiko hau elkarbizitzarako oinarrizko printzipio bat da, eta bakoitzak defenda ditzakegun legezko desadostasun eta sentsibiltate politikoen gaineratik dago.

Horretan, ez dago zalantzarik. Horretan ez da ez Gobernurik ez oposiziorik egon behar.

Nik ez dut inoiz izan, eta ez dut izango ere, inongo desadostasunik edozein alderdi edo ordezkari politikorekin pertsonen Giza Eskubideak hausten dituztenak gaitzesteko, gaitzespen hori datorrenetik datorrela ere.

Hori izan da eta aurrerantzean ere hori izango da nire lehenengo helburua, nire oinarrizko lehentasuna euskaldun eta demokrata gisa.

Atzera pauso bat bera ere ez indarkeria eta terrorismoaren biktimekin elkartasuna adieraztean. Atzera pauso bat bera ere ez pertsona guztien giza eskubide eta askatasunen defentsan.

Eta azkeneko hori hau azpimarratu nahi dut "Pertsona guztiena". Zeren pertsona guztiek, baita delituak egin dituztenek ere, eskubideak dituzte eta botere publikoek errespetatu, defendatu eta bermatu egin behar ditugu eskubide horiek.

Hemen ez dago gezurrezko distantziakidetasunik. Giza eskubideen defentsak ez ditu neurtzeko bi makila. Ezin dugu fariseismo politikoan erori eta giza eskubideen indarkeria kasu batzutan salatzen eta beste batzutan, interesatzen zaigunean, beste aldera begiratu.

Gizartearen aurrean ez du sinesgarritasunik, ezta agente moralik ere, kartzelan dauden pertsonen urrutiratzea nahiz tortura salatzen dituenak, baina gu bezalakoak direnen bizitza edo askatasunaren aurka eraso egiten denean inolako salaketarik egiten ez duenak.

Halaber, ezin du portaera etikoaz eskolarik eman terrorismoaren aurka borroka egiteko indarkeria eta hilketaren ezlegezko erabilera justifikatzen duenak edo frankismoaren garaiko diktadura salatzen ez duenak.

Giza eskubideak inongo bereizketarik gabe pertsona guztiei dagozkie, bakarrik pertsonak izateagatik, eta ordezkari politikook gizaki guztien eskubide eta askatasunak errespetatu eta defendatzeko gure konpromisoa jende aurrean erakutsi behar dugu.

Hori konpromiso etiko unibertuala denez, ezin dugu ahaztu ETA dela gaur egun gure gizartean Giza Eskubideak eta askatasuna urratzearen erantzule nagusia. ETAk aurrean izango gaitu, ez bakarrik indarkeria etikoki eta moralki salatzea delako, gainera, borroka armatua behin betiko uzteko eskatzen dion Herri honetako gehiengoaren borondatea errespetatzen ez duelako. **Nire lehentasuna beti izango da, –eta gauza guztien gainetik –, pertsona guztien bizitza eta askatasunaren defentsa eta seguritatearekin konpromiso etikoa.**

Konpromiso hau garatzeko eta gauzatzeko, legegintzaldian zehar ekimen batzuk bultzatzeko asmoa dut, bai arlo politikoan eta sozialean baita arlo polizialean ere.

a) *Arlo politiko-soziala:*

Arlo honetan, martxan jarri behar ditudan ekimenen artean, jarraian datozen hauek aurreratu nahi dizkizuet:

*Lehenengoa.- **Erakundearteko adierazpen etiko bat bultzatzea, indarkeriaren aurkako jokaera eta portaeraren erreferente politiko eta soziala izan dadin, honako hauek kontenplatu:***

- Inongo desberdintasunik gabe, pertsona bakoitzaren eta guztien Giza Eskubideak eta Askatasuna arduratsu errespetatzea.
- Indarkeria eta terrorismoa eta bere osotasun fisikoa, askatasuna eta seguritatearen kontrako mehatxuak jasan dituzten eta jasaten dituzten pertsona guztiak eraginkor defendatzea eta horiei elkartasuna adieraztea.
- Edozein motatako indarkeria eta estortsio gaitzestea, eta ETArri armak behin betiko utz ditzala eta gure arazoan konponbidea euskal gizartearen esku utz dezala eskatzea.
- Indarkeria mota guztiak kentzeko behar besteko ekimenak garatzea eta elkarbizitza bakean eta askatasunean lortzeko behar diren baldintzak sortzea.

*Bigarrenena.- **Terrorismoaren biktimekin elkartasun aktiboan sakontzea.***

- Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa sustatuko da. Horretarako, EAeko aurrekontu orokorretan aurrekontu dotazio berezi bat esleituko da pertsona egokiez osatutako azpiegitura bat ezartzeko. Bulego honen bitartez, terrorismoaren biktimen familiei indarkeria, txantajea, kaltea edo pertsekuzioa jasaten dutenei emango zaien atentzioa hurbilagoa eta zuzenagoa izango da.
- Jaurlaritzak atentzio, laguntza eta asistentzia **batzorde iraunkorra** bultzatuko du terrorismoaren biktimentzako, sektore sozialei, erlijiozkoei, mugimendu sozialei eta ordezkari politikoei irekia, euskal gizartearen elkartasuna eta terrorismoaren biktimei errekonozimendu etikoa, morala eta materiala proiektatzea bideratzeko.

*Hirugarrena.- **Pertsona guztien Giza Eskubideen eta Askatasunen defentsa aktiboa sustatzea.***

- **Pertsona guztien Giza Eskubide eta Askatasunak zainduko dituen Behatoki bat** bultzatuko da. Behatoki honek, nire iritzian, izaera mistoa izan beharko luke eta bere kideen artean Sail guztietako eta parte hartzen duten Erakunde guztietako arduradunak izan beharko lituzke, baita Epailletza, Unibertsitate, Eliza eta hiri eta bakearen aldeko mugimenduetan parte hartzen duten kideak ere. Erakunde honetatik indarkeria fisikoa eta psikologikoa bereziki jasaten duten taldeei laguntza emango zaie, gizarte baten balore etikoak degradatzen baititu indarkeriak.

Lehendakari legez, nire asmoa da proiektu horren diseinua eskatzea Giza Eskubide eta Askatasunen aldeko defentsan ezaguna den pertsona edo erakunde bati, adostasunik handiena lortzeko asmoz bai proiektua onartu aurretik bai martxan jarri aurretik.

*Laugarrena.- **Euskal gizartea Giza Eskubideen aldeko konpromiso etikora ekartzea.***

Gai honen inguruan, asmoa dut gizartea informatu eta sentsibilizatzeko kanpaina iraunkor bat bultzeko, batez ere, gazteen artean, indarkeria-ezaren kultura, giza eskubideen errespetua eta justiziaren aldarrikapena izan daitezen Herrien arteko elkarbizitzarako oinarritzko balioak.

b) Eremu poliziala:

Biziaren eta giza eskubideen aldeko konpromiso etikoaren oinarritzko zutabeetako bat indarkeria mota guztien aurkako segurtasun politika garatzea da.

Uste dut iritsi dela garaia, Gobernu bidezko eta demokratiko bati, edo euren historian zehar askatasunaren aldeko konpromiso irmo eta etengabea erakutsi duten indar politikoei, indarkeriarekin bat etortzea etengabe leporatzeak sortutako zauriak sendatu eta hausturak gainditzeko.

Ondorio bereziak izan dituzte salaketok Ertzaintzari dagokionez, bere eraginkortasuna zalantzan jartze hori urte askotako kontua izan da, gainera. Indarkeriaren aurkako borrokan Euskadiko erakundeek duten konpromisoa, eta bereziki Ertzaintzak duena, edozein zalantza izpirik gabekoa behar du izan, eta euskal erakundeek gai honen inguruan Estatuko erakundeekin jokatzen duten leialtasun maila berbera behar litzateke Ertzaintzarekin.

Berriz adierazi nahi dut, Gobernuak borondate garbia duela indarkeria ororen aurka gogor jarduteko eta gizakien segurtasun eta askatasunaren aurka ari direnak atxilotzeko.

Hori dela eta, neurri polizialak eta segurtasun neurriak areagotzen jarraituko dugu etengabe, Ertzaintzaren jarduera ETArek aurkako borrokak dituen modu berrietara eta kale borrokako ekintza mota berrietara egokitzeke.

Horretarako, Gobernuak hiru neurri multzo hartuko ditu:

1.- Estatuarekiko koordinazioa indartu.

- Eusko Jaurlaritzak bultzatuta, iazko urtean sortu zen Segurtasun Komisioaren lanei bultzada emango zaie, eta

kargu publikodunen eta mehatxatuta dauden guztien zainketa eta eskolta lan arloan lankidetzaz bultzatuko da, Gobernu honen ekimenez Estatuko Segurtasun Batzordearen baitan bertan erabakitakoarekin bat etorritik.

- Horrez gain, Schengen-eko Itunaren ondorio guztietarako sartzea eskatzen dugu, Legebiltzar honek 1999ko azaroaren 19an erabakitako eran.
- Espainia eta Frantziaren arteko lankidetzaz polizialeko foroetan Ertzaintzaren partehartzea bultzatu nahi dugu. Erabateko bategite operatibo hori lortzeko lehen urratsa Barne Ministerioko Estatu Idazkaritzarekin koordinazio lana egingo duen gure norbait izendatzea izango litzateke, Gobernu honek 1998ko martxoan planteatu zuenetik egiteke dagoen gauza.

2.- Informazio atalak eta herritarren segurtasunerako atalekin duten lotura indartu.

Gure segurtasun politikaren helburu nagusietako bat informazio eta herritarren segurtasunerako atalen arteko koordinazio ahalik eta handiena lortzea izango da aurrerantzean ere.

Izan ere, informazio lanetan jarduteko lanpostuak indartzen saiatuko gara, lanpostuak era eraginkorrean betez, eta zonalde jakin batzuetarako eta une eta egoera berezietarako diseinaturik dauden polizi-jardunerako planen garapen koordinatua bultzatuz.

3.- Baliabide polizialei neurri egokia eman.

Polizien banaketa egokiagoa lortzeko etorkizunean gauzatu beharreko ekimenen artean, hauek aurrirakusten ditugu:

- Unitateen neurritatze eta berrantolaketarako Plan Nagusi bat landu eta prestatzea, prebentzioko ratio hobeak lortzeko.
- Ertzaintzaren plantila handitzea, argi baitago Segurtasun Batzordeak 2000ko azaroaren 20ko bileran onartu zituen 150 poliziak ez direla nahikoa. Arazo honi ikuspegi guztiz malgu batetik egingo diogu aurre, hau da, etorkizunean

indarkeriak hartzen duen nondik norakoaren arabera, plantila egokitzen joateko prest baikaude, erretiroak eta beste mekanismo batzuk erabiliz horretarako.

- Udalerri nahiko handietan Udaltzaingoezikiko prebentziozko koordinazioa bultzatzea, azken hilabeteetan emaitza oso onekin burutu diren esperientzietaz baliatuz.

Neurri multzo hori Herrizaingo sailburuak aurkeztuko die Legebiltzarreko Taldeei, hau bezalako gai batek behar duen diskrezio eta konfidentzialtasun osoa bermatzeko moduan.

Orain arte esan dudan guztia pertsona guztien biziaren, giza eskubideen eta askatasunaren aldeko konpromiso etikoa bermatzeko burutu nahi ditugun lehenengo neurri politiko, sozial eta polizialak dira.

Konpromiso etiko horrek behar du izan guztiontzako abiapuntua. Normalkuntza politikorako eta elkarbizitzarako bide berriak bilatu behar horretan aurrera egiteko lehen urratsa baino ez da.

Demokraziaren benetako handitasuna honetan datza: bakoitzaren proiektu politiko bidezkoak baldintza berdinetan defendatzean, gizartea bera izatean bere etorkizuna erabakitzen duena, indarkeria, txantaia eta bortxa erabiltzea guztiz bidegabea eta alferrikoa izanik.

IV. 2.- Bakea eta elkarbizitza lortzeko elkarrizketaren aldeko konpromiso politikoa.

Nire bigarren konpromisoa, elkarrizketaren aldeko dudagabeko konpromisoa da.

Elkarrizketa, alde batetik, bakea lortzeko tresna baita eta, bestetik, elkarrizketa bidea ere baita, gure gizarteak bizi duen normalizazio politikoren eta elkarbizitzaren arazoa konpontzeko.

Askotan esan dut indarkeria ez dela gatazka politiko baten derrigorrezko ondorioa. Toki askotan gatazka politikoak izan arren, ez dago indarkeriarik.

Bereizi egin behar ditugu, beraz, bakea eta gure bidezko proiektu politikoak erdiestea.

Bakearen eta proiektu politikien arteko bereizketa azaldu ondoren, hitzegin beharra dugu eta orain hitzegin behar dugu. Ezin da egon etenik elkarrizketarako.

Orain gutxi bai batzuk eta bai besteek komunikabideetan izan dugun liskar politikoan zehar irain eta deskalifikazio ugai jaurti diogu elkarri, baina ez dugu hitzik egin.

Elkarri oihuka ibili gara, baina ez dugu hitzegin.

Irainen unea igaro da. Ekin diezaiozun elkarrizketa politiko eta instituzionalari.

Elkarrizketari uko egitea irtenbideari uko egitea da. Elkarrizketari uko egiteak irtenbide gabe uzten ditu arazoak.

Horregatik, nire iritziz, behar beharrezkoa da elkarrizketa bultzatzea, *distentsio, tolerantzia demokratiko eta elkarbizitzako* ekimenen bidez.

Illo honetatik, elkarrizketen prozesu honetan zenbait etapa izango lirateke:

- *Distentsiorako lehenengo etapa bat.*

Hizkeraren distentsioa, distentsio politikoa eta distentsio soziala, gure arteko konfidantza berreskuratzeko. Hausten joan diren harreman pertsonalak berreraikitzen joan beharra dago, edozein ekimen bultzatu aurretik.

- *Tolerantzia demokratirako bigarren etapa bat.*

Bizitzaren aldeko guztien konpromiso etikotik abiatuta, bakoitzaren proiektu politikoak naturaltasunez, tolerantziaz eta errespetuz onartzen ikasi beharrean gaude.

Inork ezin dio beste bati eskatu elkarrizketari ekin aurretik eta baldintza bezala bere ideologiari edo proiektu politikoei uko egiteko.

Ezin ditugu ideiak kriminalizatu. Ezin ditugu salaketa bezala erabiltzen jarraitu guztiz bidezkoak diren kontzeptu eta proiektu politikoak.

Konstituzioa, Estatutua, Burujabetza, Independentzia, ez dira berba absolutuak, aldaezinak, itxiak, iraunkorrak, ñabardurarik gabeak. Gizakien eta Herrien arteko elkarbizitzarako jarri beharreko kontzeptuak, ideiak, tresnak baino ez dira, eta hala ikusi behar ditugu, demokrazian errespetatu eta egokitze moduan.

Proiektu politiko guztiak dira planteagarriak eta lortzeko modukoak, beti ere bake bideetatik defendatzen badira eta bide demokratikoak goitik behera errespetatzen badira.

Guztiok onartu behar dugun tolerantzia demokratikoko oinarrizko printzipio bat da hori.

- *Hirugarren etapa. Elkarbizitzaren aldeko kultura bultzatzea.*

Premiazkoa da elkarriketari jarritako oztopoak gainditzea. Borrokaren kulturatik elkarbizitzaren kulturara joan behar dugu.

Horretarako alde guztien arteko elkarriketa bultzatu beharrean gaude, besteen arrazoiak entzun eta ulertzeko. Denon arteko elkarriketa, inor kanpoan uztea bilatu gabe, integrazioaren aldekoa.

Batera ibiltzen ikasi behar dugu elkar hartuz, errespetatuz, eta elkarlanean jardunez. Bakea eraikitzeko denok baikara beharrezkoak: alderdi politikoak, agente ekonomikoak, sindikatuak, gizarte mugimenduak, Eliza, Unibertsitatea eta komunikabideak. Denok dugu zeresana.

Orain arteko etapa hauek tresna politiko eta sozial desberdinak erabiliz garatu ditugu. Lehenago ere, Bakea bilatu izan da bide desberdinetatik, bidezko bideetatik kasu batzuetan eta ez hain bidezkoetatik beste batzuetan.

Lehendakaria izendatzeko Bilkura honetan egiten dudan zinezko proposamena hau da, jar dezagun Eusko Legebiltzarra, euskal gizartearen bidezko ordezkari gorena, batetik Bakea eta bestetik Normalkuntza Politikoa lortzeko ekimen guztien erdian.

Ez dugu foro berri bat asmatzen ibili beharrik. Erabil dezagun gure gizartearen borondate demokratikoa ordezkatzeko duen erakundea. Ekin diezaiozun bideari.

Bide horri ekiteko, iragartzen dizuet asmoa dudala irailean **eztabaida monografiko bat** planteatzeko **Bakearen eta Normalkuntza Politikoaren inguruan** eta baita ere elkarriketak gizarte mailako elkarbizitza bilatzeko tresna moduan izan dezakeen balioaren inguruan.

Osoko Bilkura horretan denok izango dugu kartak erakusteko aukera, mozorro eta estalkirik gabe, irainik gabe. Tolerantzian eta errespetu demokratikoan oinarrituta.

Hitzegin dezagun argi eta garbi gure artean eta hitzegin diezaiogun argi eta garbi euskal gizarteari.

Euskal gizarteak jakin beharra duelako:

- Indarkeria eta gatazka politikoaren inguruan bakoitzak egiten duen diagnostikoa.
- Zeintzuk diren, diagnostiko horren arabera, bakoitzak aplikatu nahi dituen terapiak.
- Zein printzipiotan gatozen bat.
- Elkarrizketei dagokienez, zein prozedura planteatzen dugun.

Osoko Bilkura horren **helburua**, argi dago, ez da barren barreneko arazoen inguruan bat etortzea, baina bai behintzat **aurrera egiteko aukera ematen diguten bideak eta tresnak finkatu eta antolatzea**.

IV. 3.- Euskal gizon-emakumeon erabakiak errespetatzeko konpromiso demokratikoa.

Hirugarren ardatza, Erakunde honen aurrean hartzen dudana zinezko konpromisoa, euskal gizartearen errespetuari dagokiona da.

Bere erabakiak beti errespetatzeko konpromisoa. Besterik ez, baina bai horrek esan nahi duen guztiarekin.

Den denok hitz emango bagenu prest gaudela euskal gizartearen gehiengoaren borondatea errespetatzeko, irtenbidearen atean egongo ginateke. **Bene benetan, uste dut errespetua dela gure elkarbizitzarako “gakoa”**, eta denok jarri beharko gara ispilu horren aurrean.

Errespetua euskal gizon-emakume guztien gehiengoaren borondatez orain arte eraikitako esparru juridikoari, erakundeei eta erabakiei;

Eta *errespetua*, baita ere, horiek aldatzeko edo eguneratzeko har daitezkeenei.

Beraz, errespetua, euskal gizarteak atzo, gaur eta bihar askatasunez adierazitako borondateari.

Eta nola gauzatzen da konpromiso hori?

Nire proposamena da datorren urrirako, -Gernikako Estatutuaren hogeitabigarren urteurrenarekin bat eginez-, **autogobernuaren inguruko osoko bilkura monografiko bat planteatzea, burujabetza mailaren inguruan euskal gizarteak adierazitako borondatea betetzeko asmoz bakoitzak aurkezten dituen ekimenak aztertzeko denon aurrean.**

Osoko bilkura horretan denok izango dugu aukera Gernikako Estatutuaren garapen osoa eskatzeko, Legebiltzar honek hartutako erabakiak onartzen ditugun ala ez argi eta garbi esateko; eta baita ere, Espainiako Gobernuak gure burujabetza murrizteko bultzatutako zenbait ekimen politikoren ondorio kezkarriak baloratzeko.

Europako Elkartearen integrazio prozesuan, estatu mailakoak ez garen errealitateak Europako erakundeetan izan dezakegun partehartzearen eta subiranotasunaren inguruan gertatzen ari den eztabaidaren eragina ere baloratzeko aukera izango dugu. Eta, azkenik, gure Estatutuan bertan ezartzen diren bideei jarraituz, Estatutua eguneratzeko eta egokitzen joateko adostasunetan aurrera egiteko tresnak proposatzeko aukera izango dugu.

Uste dut eztabaida hau egokia ezezik luze gabe egin beharrekoa ere badela, Estatutua onartu zenetik hogeita bi urte igaro ondoren, eta Eusko Legebiltzarraren ahobateko jarrera eta behin eta berriz egindako salaketa politikoa ikusi arren, *oraindik bete gabe dagoen Lege Organiko bat* da Gernikako Estatutua. Ohore tristea, bai horixe! Gernikako Estatutua garatzea Espainiako Gobernuan agintzen ari izan den alderdiaren komenientziaren mende izan da azkenaldian.

Baina hori ez da dena; horrez gain, azken garai hauetan gure autogobernua etengabe murrizten ari zaigu, gureak genituen eskuduntzak bere gain hartzen dituzten zenbait lege estatalen bidez.

Duela gutxi, azken hauteskunde kanpainan zehar, Legebiltzar honetan gauden alderdi politiko ia guztiak azaldu gara Estatutu Itunaren alde. Ez bakarrik hori. Batzuek Estatutuaren aldarrikapen sutsua erabili dute abertzaleen aurka eta Estatutua euren proiektu politikoaren zutabe nagusi bezala aurkeztu dute.

Ondo da, azkenean iritsi zaigu denoi garaia hauteskunde kanpainan agindutakoa betetzeko eta Gernikako Estatutu osoarekiko konpromisoa gauzatzeko.

Iritsi da garaia orain hogeita bi urteko erreferendumean euskal gizartearen gehiengoak adierazitako borondatea betearazteko.

Eztabaida hori mahai gainean jarri behar dugu behingoz, sendotasunez eta seriotasunez.

Iritsi da garaia Estatutua bere osotasunean betetzeko bakoitzak gure gain hartzen ditugun konpromisoak eta egiten ditugun proposamenak zeintzuk diren euskal gizon emakumei jakitera emateko.

Eta hori egin beharrean gaude ez bakarrik euskal gizarteari zor diogun errespetuarengatik, baita ere Eusko Legebiltzarrean gai honen inguruan ahobatez onartutako erabakiekin koherenteak izatearren ere –azkena, 1995eko urriaren 20an onartu zen, hau da, duela ia sei urte–.

Ezin dugu berriro gelditu salaketa huts horretan, ordea. Hitzetatik ekintzetara pasatu beharra dago.

Aurreratu nahi dizuet Jaurlaritzak borondate irmoa duela beharrezkoak diren baliabide juridiko, politiko eta sozial guztiak erabiltzeko legegintzaldi honetan Gernikako Estatutu osoa bete dezaten lortzeko. 22 urte eta gero ez da erantzukizun politikoko arazoa soilik, ez. Ez gaude prest euskal gizon-emakumei geurea den burujabetza horren bitartez eskuratu ditzakegun ongizate eta bizitza maila hobek eskuratzeko orduan alde batek jartzen dizkigun oztopoak onartzeko.

Baita ere, aurreratu nahi dizuet eztabaida horretan **gure autogobernuan sakontzeko Legebiltzarreko Batzorde berezi bat** eratzea proposatzeko asmoa dudala. Batzorde horrek honako bi zeregin hauek izango ditu: alde batetik, gaur egungo itun estatutarioa guztiz betetzeko eta errespetatzeko eskatzea, eta bestetik, normaltasun osoz, itun hori eguneratzeko eta egokitzeko aukera planteatzea; beti ere, itun horrek dituen potentzialtasunen arabera eta euskal biztanleen borondatearen arabera.

Gaur egungo itun estatutarioa guztiz betetzeko eta errespetatzeko zeregin hori aurrera erameteko, aurreratu nahi dizuet Eusko Jaurlaritzak, premia osoz, Estatuko Gobernuari proposatuko diola maila goreneko Batzorde Politiko Negoziatzaile bat eratzea, Legiltzarreko batzorde horrekin lankidetzan estuan ari dadin.

Sei hilabete igaro ondoren, eta edozein modutan ere datorren urte politikoa amaitu aurretik, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarren Osoko Bilkura berri bat egitea eskatuko du lortutako emaitzak baloratu eta, hala badagokio, egokitzen jotzen diren neurri eta ekimen berriak abian jartzeko.

Bestalde, burujabetzan sakontzeko eraturako Batzorde berezi horrek **indarrean dagoen estatutuari buruzko ituna eguneratzeko eta itun hori egokitzeko aukera legitimoen inguruko eztabaida demokratikoa burutuko du.**

Eztabaida demokratiko horrek euskal biztanleen borondatea errespetatzeko printzipioa eta oraingo estatutuak jasotzen dituen potentzialtasunak izan behar ditu euskarri.

Gogoan hartu behar baitugu Estatutuari buruzko ituna ez dela berez marko itxi bat, eta ez dela aldaezina. 1979 urtean jaio zenetik, adostasun politikora irekitako tresna bezala eratu zen, euskal gizartearen borondatearen bilakaerari berari egokitzeko modukoa.

Gernikako Estatutua, bere osotasunean planteatuta, tresna zehatz eta bikaina da. Bere baitan elkarbizitzarako balio dezaketen adostasun berriak lortzeko aukerak eskaintzen dituen tresna, xedapen gehigarriari eta Estatutua bera aldatzeko ezarritako prozedurei begiratzen badiegu.

Adostasun politiko eta soziala era zabalean eraikitzearen alde jokatu behar dugu, euskal gizarteak bere garaian hartutako erabakietan oinarrituta orain arte eraikitakoa errespetatuz, eta gaur eguneko errealitate eta sentsibilitateetan oinarrituta, adostasun horren eguneratzea eta egokitzea ere errespetatuz.

Zeren, ez baitu errespetatzen euskaldunen bidezkoatasun demokratikoa Gernikako Estatutua –Euskadi eta Estatuaren arteko itun politikoa den neurrian– bere osotasunean betetzeko konpromisoa hartzen ez duenak eta onartzen ez duenak. Eta ezta ere, ez du errespetatzen euskaldunon bidezkoatasun demokratikoa, Euskal Herriari Estatutua xedapen gehigarria garatuz aldatzeko aukerei uko egitea eskatzen dionak; beti ere etorkizunean Estatutua aldatzeko behar diren gehiengoak sortzen badira.

Uste dut premiazkoa zaigula gai horien inguruan lasaitasunez hitzegitea; horretarako, jarrera ireki eta demokratikoa erabili behar dugu eta onartu behar dugu euskal gizarteak eskubidea duela kontsulta dakion bere etorkizuna erabakitzeko. Zer du horrek txarrik?

Europako egoera berriak definizio berri bat eskatzen digu denoi, eta kontzeptu eta egoera berrietara egokitzea. Subiranotasun konpartitu edo erdibanatua, subsidiaritatea, bat-egite askea, errealitate ez estatalen partehartzea erabakiak hartzeko guneetan, lankidetzaren erregionala eta mugen gainekoa, Europako Elkartearen barruko harremanak, e.a. izango dira hurrengo urteetan esparru europarra osatuko duten errealitateak. Inor ez da eskandalizatu behar horregatik.

Hala eta guztiz ere, eta gure autogobernua eguneratzeko helburu honi dagokionez, gai izan behar dugu denon artean aurretik finkatzen dugun zentzuzko epe batean lortutako aurrerakuntza eta adostasuna baloratzeko. Epe hori igarotzen denean, asmoa dut Legebiltzarraren osoko bilkura bat eskatzeko gure adostasunen berri emateko gizarteari eta bilgune gehiago bilatzeko proposamen eta ekimen berriak finkatzeko helburuarekin.

IV. 4.- Euskadiren eraikuntza sozialarekiko konpromisoa

Euskadiren eraikuntza soziala izango da Gobernuaren gestioan *benetako bizkarrezurra* eta horrek bizitza egokitu zaigun aldakuntzen aurrean erakundeen aldetik ematen dugun erantzuna islatzen du. Gizarte ireki bati dagozkion baloreetan oinarrituta, **ongizatearen eredu soziala bat eraiki nahi dugu, Estatuan eta European erreferentea izango dena.**

Gizakiari bizitzeko proiektu independente bat aurrera eramateko eskubidea dagokio eta gure helburua eskubide hori gauzatzen laguntza da.

Ez dugu nahi, besterik gabe, bazterketa sozialeko egoeren kronifikaziora daramaten politika pasiboen errukian babestu gure buruak; aitzitik, estrategia aktiboak bultzatuko ditugu, pertsona bakoitzari gizartean era eraginkorrean integratzeko duen eskubideaz baliatzen lagunduz.

Hain zuzen ere, Estatu Sozial berria gizabanakoaren autonomian oinarritzen delako, horregatixe bereganatzen ditu enpresa ekonomiaren errealitate eta baloreak gizarte irekiaren arazo ekonomikoari aurre egiteko aukera onenak bezala.

Estatu Soziala eraikitzea bere oinarri ekonomikoak sistema lehiakor eta berriztatzaile baten bidez eraikitzea da, beti ere argi izanik pertsonak merkatuaren ginetik daudela. Pertsonaren izaera sozialak berak ematen dio bizitza duina izateko eskubidea eta eskubide hori lana, hezkuntza, osasuna, etxebizitza eta gizarte babesaren bidez gauzatzen da.

Bi ardatz hauetan oinarrituta –aberastasunaren sorreran, alde batetik; eta integrazio sozialean, bestetik– hezurramituko da Euskadiren eraikuntza sozialaren aldeko gure konpromisoa.

Ondoren, oinarri ekonomikoak aipatuko ditut, gero berriz alderdi soziala eta elkartasuna aipatzeko.

IV.4 A) Lehenengo ardatza: aberastasuna sortzea, eraberritzea eta hazkunde iraunkorra

Euskadin era nabarmenean berreskuratu eta zabaldu da enpresa izpiritua. Herri baten ekonomia bertako enpresa eta familien ekonomian oinarritzen da. Azken hamarkadetan izan ditugun emaitza

onek erakusten dute batez ere ahalegin endogenoaren fruitu direla emaitzak eta ahalegin horrek, enpresen sorrerari dagokionez, euskal ekonomia Estatuko lehen mailara eraman du.

Kemen horrek etengabe gure inguruko ekonomien ginetiko hazkundera izatera eraman gaitu eta kemen horri laguntzen jarraitzeko asmoa dugu, Europako errenta mailara iritsi arte.

Gizarte bezala dugun hurrengo erronka enpleguan eta teknologian Europarekiko konbergentzia lortzea da. Horretan erabiliko ditugu gure indarririk handienak.

Horretarako, lehiakortasuna hobetzeko politikak sakonduko ditugu, enpresen eraberritzea, prestakuntza, nazioarteratzea etabar bultzatuz eta enplegua sortzeko inbertsioen bidez, enpresa ertain eta txikiekin ahalegin berezia eginez, Enpresa Txikien Europako Kartak ezarritakoaren ildotik.

Gure enpresa sarearen lehiakortasuna hobetzea da hazten eta enplegua sortzen jarraitzeko oinarria, eta iraganean martxan jarri ditugun eta etorkizunean bultzatuko ditugun politiken erreferentea izaten jarraituko du.

Halere, kontua ez da gauzak ondo egitea; kontua da gauzak besteek baino hobeto egitea. Horregatik, politika publikoetan nolabaiteko jarraipena izango den arren, aplikatuko ditugun estrategiak berriak izango dira, euskal gizartearen erronka eta eskaera berrietara hobeto egokitzeko.

Hasteko, **aberastasuna eta enplegua sortzeko gure azken helburu hori nahitanahiez *hazkunde iraunkorrarekin* lotutako helburua da.** Gure ikusmuga ingurugiroko arauak betetzea baino askoz haratago doa. Ingurugiroa politika ekonomikoetan eta sozialetan integratzean datza, iraunkortasun kontzeptu hori ere hirien garapeneko eta arlo desberdinetako irizpide nagusi izan dadin, besteak beste, industria, nekazaritza, energia eta garraioa bezalako arloetan.

Hazkundera iraunkorra egiteko, ingurugiro mailako politikei bultzada berezia eman behar bazaie, hazkundera “bermeduna” izan dadin,

garaiari egokitutako estrategia berriak garatu behar dira. Euskal gizarteak gaur bizi duen garapen maila lortu ondoren, ezin du etorkizunera begiratu kanpoko teknologiak ekarriz eta kostuak murriztuz; aitzitik, *berrikuntzaren, kalitatearen eta ezagutzen sorreraren* erronkari aurre egin behar dio.

Gaur Euskadiren bigarren aldakuntza ekonomikoa ari gara planteatzen eta aldaketa horrek honako hiru zutabe hauek ditu: 1) informazioaren eta ezagutzaren gizartea sortzea, 2) Euskadi Europako ikerkuntzaren eta teknologiaren erreferente bihurtzea, 3) edozein elkarte kudeatzeko Kalitate Osoaren printzipioa hedatzea.

- 1) Azken urte t´erdian nabarmen aurreratu dugu guztiontzako den *informazioaren gizartea* eraikitzeko proiektuan, horretarako beharrezkoa zen aldaketa kulturala eraginez, herritarrei Internet erabiltzeko laguntzak eskainiz, salerosketa elektronikoak eta ekonomia berriko enpresak sustatuz, eta administrazioak on-line eskaintzen diren zerbitzuak gehituz. Plan horretako jarduera ardatzak izango dira etorkizun hurbileko lehentasunetako bat. Gizarte guztia inplikatu nahi dugu informazio teknologia berrien garapenean Euskadi erreferente eredu izatera hel dadin, Internet-eko erabiltzaile kopuruan, telekomunikazioetako azpiegituren hobekuntzan, garrantziko edukien sustapen eta formakuntzan, eta abarretan, Europako iparraldeko herrialde aurreratuenei jarraituz.

- 2) Aldakuntza honetako *bigarren zutabea politika zientifikoak eta teknologikoak* osatzen dute. Iraganeko arrakasta haundienetako bat, geurea den zientzia eta teknologia sistema eraikitzea izan da, gure sare produktiboaren premiei aurreriteko sortua. 600 milioi euroko aurrekontua duen 2001-2004 Zientzia eta Teknologia Plan berriarekin, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko ahaleginen sinergia lortzeko oinarriak jarri ditugu, horrela Europarekiko konbergentzia teknologikoa lortzeko.

Aipatu dut lehenago Estatutuaren garapena, baina aipamen berezi bat egin beharrean aurkitzen naiz orain Estatutuaren 10.16 artikulua euskal administrazioari ematen dion eskuduntza eskubisibo bat eskualdatzeaz; *Estatuarekin koordinaturik, zientzien eta tekniken ikerkuntzako eskuduntza eskubisiboa* eskualdaketaz, alegia. Nahiko nuke Legebiltzarreko talde guztiak bat etortzea egoera hau aldatzeko premia larriarekin, gure garapen zientifiko eta ekonomikoa era eraginkorragoan bultzatu nahi bada.

- 3) Euskadiren aldakuntza ekonomikoa oinarritzeko erabiliko dugun *hirugarren zutabea, Kalitate Osoari eta Ezagutzaren Kudeaketari*

eman beharreko bultzadarena da. Zertifikazio mailan Euskadi hirugarren postuan jarri ondoren, bide horretatik jarraitu nahi dugu eta enpresa guztietan eta edozein elkartetan Kalitate Osoaren printzipioak ezartzen jarraitu nahi dugu.

Horretarako zenbait estrategia bultzatuko dira gestioan bikaintasuna lortzeko, eraginkortasuna hobetzeko eta eraberritzeak bultzatzeko asmoz enpresako langile guztien ahalmenez baliatuz. Gure helburua da Kalitatea ezartzea gure enpresa guztietan eta Euskadi kalitatean oinarritutako herri bezala aurkeztu ahal izatea kanpoan.

Nahi dugu euskal gizarteak argi ikustea Gobernu honek Euskadiren bigarren aldakuntza ekonomiko handi honetarako hiru zutabe hauekin hartu duen konpromisoa. Hori dela eta, Jaurlaritzaren aurrekontu orokorretan urtero jasoko dira **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza izeneko atal berezi** batean, helburu hauek lortzeko erabiliko diren dirutzak.

Horrez gain, hiru hilabetetik behin, Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak bilera berezi bat egingo du tartean diren sailburu guztiekin, Jaurlaritzaren jardueran Atal honek duen betetze mailaren jarraipena egiteko.

Jaurlaritzaren aldetik, **Zientzia, Teknologia eta Eraberritzearen Euskal Kontseilua eratuko da**, erakunde publiko eta enpresa eta elkarte pribatuen parte hartzearekin, nik neuk bultzatu eta burutuko dudana, berrikuntzarako euskal sistema bat antolatzeko eta gure gizarteari publikoki gure Europarekiko konbergentzia eta aldakuntza prozesuan ezarritako helburuen garapena eta aurrepenen urteroko balantzea egiteko.

Berrikuntzaren erronka hori faktore kritikoa da gure hazkunde ekonomikoan eta oinarrizko zutabea gure ongizateko sistema mantendu eta hobetzeko orduan.

Berrikuntza pertsonen zerbitzuan jarri beharra dago, politiketatik eta aurrekontuetatik haratago, Euskadiren bigarren aldakuntza ekonomiko hau burutzeko gakoa eta gure inguruko ekonomien gaintetik hazten jarraitzeko gakoa pertsonengan aurkitu beharra dago.

Gizalagunak dira XXI. mendeko asmakuntzarik onena. Pertsonak eta euren heziketa dira Herri batek duen kapital nagusia.

Gizon-emakumeen eta euren heziketan oinarritu beharrean gaude etorkizuna eraikitzeko.

Beraz, horiek dira, euskal gizon eta emakumeak, gure arreta nagusia izango dutenak, eta lehenago aipatu dudan gizarte bidezkoago bat, integratu bat, eta solidarioago bat eraikitzeko bigarren ardatzaren onuradun nagusiak.

IV. 4. B) Bigarren ardatza: kohesioa, berdintasuna eta gizarteratzea.

Heziketa, aktiborik garrantzitsuena da norberaren errealizazioa lortzeko. Era berean, heziketa ezinbestekoa da herriek arrakasta izan dezaten.

Horregatik, gure lehenengo lehentasunak bi hauek dira: derrigorrezko heziketa osoan kalitaterik gorena bermatzea eta lanbide eta unibertsitate prestakuntza behar adinako baliabideez hornitzea. Hortik aurrera, bizitza osoan ikasketa iraunkorra guztiontzat errealitate bihurtzea da erronka.

- *Derrigorrezko Heziketaren* arloan, ezinezkoa da hemen biltzea helburu horiek betetzeko egin behar diren ekintza-norabide guztiak. Hori dela eta, batzuk aipatuko ditut, besterik gabe: ikastetxeen autonomia sendotzea; oinarri eta tresna-gaiak indartzea; irakasleen prestakuntza bultzatzea; baloreetan oinarritutako heziketa, hiru hizkuntza ikastea eta teknologia berriak sustatzea; European indarrean dagoen kalitatezko eredia ikastetxeetan ezartzea, eta gaurko beka sistemaren dotazioa handitzea, horrela pertsona guztiek heziketa egokia izan dezaten, edonolako oztopo ekonomikoak ezabatu ahal izateko.
- *Lanbide Heziketa* arautu, iraunkor eta okupazionalari dagokionez, Lanbide Heziketako Euskal Plana garatzen eta ezartzen jarraituko dugu. Bigarren heziketa hartzen duten ikasleen %50a lortu nahi dugu lanbide heziketarako (gaurko portzentajea %43koa da). Prestakuntza iraunkorraren arloan, onartu behar dugu prestakuntza honen finantziazioa Euskadik egin behar duela HOBETUZen bitartez eta gure finantziario sistema bereziaren araberrako prestakuntza kuoten bitartez. Era berean, prestakuntza okupazionala eta laneratze diseinu pertsonalizatuak eman behar dira, Lanbide Orientaziorako Euskal Zerbitzuaren bidez.
- *Unibertsitate irakaskuntzaren* arloan, deszentralizazio eta autonomia irizpideen aplikazioan sakonduko dugu, malgutasuna,

baliabideen optimizazioa eta emaitzen ebaluazioa bultzatuz. Unibertsitatearekin dugun konpromiso sendoa gauzatzeko, finantzazioa handituko dugu, BPGaren terminoetan, euskal unibertsitateak emandako heziketaren kalitatea handitzeko eta, horrela, bai Estatuan, bai Europan, derrigorrezko erreferente eta eredu bihurtzeko.

Garatu nahi dugun Gizarte-Estatuaren eredu aurreratuak apustu argia egiten du oinarrizko zerbitzu unibertsalak egon daitezen, berdintasunaren azalpenik onena baita hiritar guztien gizarteratzea.

Horixe da gure **osasun sistemaren** kasua. Jakina denez, kalitate estandar handiak lortu ditu. Horiek aldatzen jarraitzeko asmoa dugu; horretarako, unibertsaltasun, elkartasun eta orekaren printzipioetan oinarrituko gara eta hiritarrak izango dira sistema horren ardatz nagusiak.

Osasun Plan berriak kalitate osoaren kalitatea suspertuko du eta, horretarako, itzarote zerrendak gehiago murriztuko ditugu; gaixoei ematen zaien informazioa eta harrera hobetzen ahaleginduko gara eta zerbitzuarekin pozik geratzeko aukerak handituko dira.

Beste alde batetik, nolabaiteko premia izateagatik, gizarte eta osasun zerbitzuak eskatzen dituzten adineko pertsonak gero eta gehiago direnez, ekintza publikoak gehiago koordinatuko dira, Erakunde arteko Plan baten bidez. Horrela, zahartzaroko demenzia eta patologia kronikoak dituzten pertsonen arazoei aurre egin nahi zaie; eta horretarako, baliabideak optimizatu eta irabazteko asmorik ez duten elkarteen lankidetzak sustatu nahi dira.

Gizarte bazterketa eta pobreziaren aurka egiten duten politika guztiek arlokako politiken koordinazioa eta eskuhartze globalen diseinu bateratua izan behar dituzte.

Hori dela eta, gizarte politika birplanteatuko dugu, bazterketa sortzen duten arloetan –etxebizitzan, heziketan, osasunean, enpleguan, adibidez– dauden oztopoak gainditzeko eta, horrela, beraien ondorioei aurre egin ahal izateko. Ondorioz, ongizatearen arloko

politika aktibo eta pasiboak integratu nahi ditugu, aukerarik gutxien duten pertsonak gizarteratzeko.

Aurreko legegintzaldian Gutun Sozialaren inguruan piztu zen eztabaidan, eta arlo sozialean burututako beste aldaketetan oinarrituta, aurrerapauso handia eman genuen soilik arrazoi ekonomikoek eragindako bazterketa saihesteko. Horretarako, prestazioak %46an igo ziren, oinarrizko errentaren figura onartu eta lanbide arteko gutxieneko soldataren portzentaje batean ezarri genuen, eta hirurogeita bost urte baino gehiagokoei prestazio hori jasotzeko aukera eman genien.

Legegintzaldi honetarako zehaztu dugun helburua oinarrizko errenta era progresiboan egokitzea eta handitzea da, horrela, oinarrizko errenta hori jasotzen duten pertsonen bizimodu duina bermatu ahal izateko. Baina oinarrizko errenta eskubide gisa eratzten bada ere, gizarteratze eraginkorra lortzeko diseinatzen diren plangintza eta ibilbideetan era aktiboan parte hartzeko erantzukizunari lotuta egon behar du eskubide horrek. Euskadi 2000 Hiru Ekimenaren markoan, oinarrizko zerbitzu sozialen giza baliabideak hobetu ziren, eta AUZOLAN programari esker, atea zabaldu genien gizarte-lan eta prestakuntzaren esperientziei.

Gizarteratze politikaren alde aktiboak hobetzen jarraitu behar dugu. Eta horretarako, ongizate sistemaren segmentuak biltzen dituen antolakuntza eredu erabili behar dugu, erakundeen artean behar den koordinazioa bermatuz eta benetako emaitzak gizarteratze terminoetan behar bezala aztertzen dituen plangintza eredu bat ezarri.

Zentzu horretan, **enplegu-politika** guzti-guztiak, aukerarik gutxien duten pertsonen zerbitzura egongo dira. Talde horretan, bazterketa egoeran daudenak ez ezik, denbora luzean lanik gabe egon diren pertsonak, adin handiagoa duten langabeak, emakumeak, etorkinak eta gazteak ere sartzen ditugu.

Elkartasunak **lurraldearen alderdia** ere badauka, eta arreta berezia emango diogu. Arlokako politiketan –esate baterako, gizarte ongizatean, etxebizitzan eta ekonomiaren sustapenean– premia duten eskualdeei zuzendutako diskriminazio positiboa erabiliko dugu. Horretaz gain, IZARTU programa martxan jartzeak ekarri duen aurrerakada gauzatzen joango da, ekimen honen emaitzak aztertu ondoren, udalerrri eta eskualde behartsuenen premiei lotutako berpizte-ekintza integralak bultzatzen jarrai dezaten toki entitateek berek.

Etxebizitza ezinbesteko politika sektoriala da, berdintasuna eta elkartasuna sustatzeko. Horren inguruan, babestutako etxebizitzaren eskaintza areagotzeko eta eredu-marko propioa emateko asmo argia dugu. Aldi berean, babestutako etxebizitzak sustatzearen ikuspegi sozialean sakondu nahi dugu, alokairuaren figura bultzatuz eta gizarteratzeko plangintzetako ekintzekin koordinatuz.

Justizia ere aipatu nahi dut, laburki bada ere, Gizarte-Estatuaren oinarrizko zerbitzu publikoa delako. Epailearen babes eraginkorra izateko eskubidea hobeto bermatuko litzateke, Justiziaren antolaketa deszentralizatuta eta Euskadiko inguru eta gizarte egoerari egokিতuta egongo balitz. Norabide horretan, Justizia eta Botere Judizialaren erreforma posible izan arte, Eusko Jaurlaritzak aurrera jarraituko du administrazioaren baliabideak hobetzeko planarekin; orain arte, begibistako emaitzak lortu ditu plan horrek. Legegintzaldi honetarako, egoitzen plana bukatuko da; hirugarren informatika planari ekingo diogu eta Bulego Judiziala egituratuko dugu, arrazionaltasun, arintasun eta eraginkortasuna irizpide nagusiak izango direlarik.

Gizarte-eraikuntzarekiko konpromisoa, azken batean, berdintasunarekiko konpromisoa da. Eta, gure ustez, berdintasuna denak aintzat hartzea eta gizarteratzea denez, **gizarte-zaintzaren politikek, bazterketa egoerei aurre egiteko zuzentzeaz gain, talde eta kolektibo zehatzen arazo bereziei** eskaini behar zaien laguntza izango dute helburu. Lehen, laguntza behar duten adineko pertsonen beharrak aipatu ditut. Orain, familiari, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari, gazteriarri eta etorkinei laguntzeko politikak aztertu nahi ditut.

- **Familiaren aldeko Erakundearteko Plana** onartu berri dugu eta hurrengo legegintzaldian jarriko dugu martxan, gure ustez, berdintasunean aurrera egitea ezinbestekoa baita. Planaren helburua, ekonomia, gizarte eta lan-arloetan dauden oztopoak gainditzea da, horrela, familiek, askatasunez hartutako erabakien ondorioz, nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten. Beste herri batzuetako esperientzia arrakastatsuei jarraiki, neurri sorta bat ezarriko da –hala nola, zerga-laguntza, haurtzaindegiak, familia ugarietzako laguntzak, baloreak sustatzeko sentsibilizazioa, aukera-berdintasuna, eta abar–, enplegua amatasunarekin eta aitatasunarekin bateragarri egiten laguntzeko eta seme-alabak dituzten familiak berdintasun egoeran jartzeko.

Familiaren arloan, izatezko bikoteei buruzko Legea ere bultzatuko dugu, Eusko Legebiltzarrak onar dezan; lege horrek izatezko bikoteen eskubide eta eginbeharrak arautu beharko ditu, ezkonduetako bikoteekiko berdintasuna lortzeko aurrerapausoak emateko.

- **Gizon eta emakumeen artean berdintasuna lortzeko politika, Eusko Jaurlaritzaren ekintzen lehentasunezko helburua izango da.**

Euskadi guztion artean, gizon eta emakumeen artean eraiki behar dugu, berdintasunean. Mende berri honetarako gizarte modernoa eraiki nahi badugu, gizon eta emakumeen arteko edozein bazterketa mota ezabatu behar dugu, behingoz. Emakumeak benetan integratu behar ditugu euskal gizartearen sektore guzti-guztietan. Denok hartu behar dugu parte eginkizun horretan; hori ez da bakarrik emakumezkoen lana; batez ere gizonezkoena da. Gizartearen sentsibilizatzeko eta egokitzeko prozesuan, gizonok erantzukizuna dugula gureganatu behar dugu. Agian autokritika egin eta maskulinitasunaren kontzeptua aztertu beharko dugu, horrela egiten ez badugu, gizarte-integrazioaren prozesua ez

delako era naturalean egingo; aitzitik, beharrezkoak ez diren gatazkak ekarriko dituelako.

Gure etorkizuna, euskal gizartearen etorkizuna irabazteko, pertsona guztien artean, gizon eta emakumeen artean, bizitzaren eginkizun eta funtzio guztiak elkarbanatzea ezinbestekoa da.

Lehendakaria naizen aldetik, konpromiso pertsonal eta zuzena hartu dut (eta horrela jarraituko dut aurrerantzean ere), helburu hori errealitate bihurtzeko. Eta Eusko Jaurlaritzatik, horretarako behar diren neurri guztiak bultzatuko ditugu.

Hain zuzen ere, Emakunderen bitartez martxan jarri diren ekintza positiborako planak bultzatzeaz gain, legegintza aldi honetan, **Berdintasunerako Euskal Legea** aurkeztuko diogu Eusko Legebiltzarrari, gure gizartearen eremu guztietan –politikan, gizartearen, kulturaren zein lan munduan– emakumeen integrazioa gauzatu ahal izateko.

Ziur nago gure bizitzan gauzak hobera egingo dutela Emakumeak gure gizartearen alor guztietara iristen badira. XXI mendeko aldaketa handi baten aurrean gaude, eta euskal gizarteari, eta euskal gizonei batez ere, eskatu nahi diet aldaketa horren aitzindari izan daitezela.

- **Gazteria politika ere Jaurlaritzaren lehentasunezko helburu izango da** eta politika horri arreta berezia eskainiko diogu, bere integrazioa errazteko eta adin horri lotutako arrisku-faktoreei aurre egin ahal izateko. Euskal Erakundeek lankidetzaz, Eusko Jaurlaritzak abian jarriko du bigarren Gazte Plana. Horri esker, gazteei laguntzeko estrategia global bat garatu ahal izango dugu. Aisialdia, heziketa eta lana planaren barruan sartuko ditugu, eta ikuspegi berezia emango diegu osasun gaiei eta etxebizitza arazoei. Azken kasu horretan, alokairuzko etxebizitza suspertzeko ahaleginak egingo ditugu. Gure ustez, horixe da, laneratzearekin batera, gazte askoren kasuan, independentziaz bizitzeko zailtasun handienak sortzen dituen faktorea.
- Gazteria politikaren giltzarri izango da gero eta gehiago hartzea kontuan gazteria bera. Horixe da iraganetik ikasi duguna eta etorkizunean aurre egin beharreko erronka.
- Halaber, **Etorkinei zuzendutako Plan bereziari** ekingo diogu, etorkinen giza-eskubideak bermatzeko xedez. Plan horretan koordinatutako hainbat ekintza burutuko dira, heziketa, kultura, osasun, herri-zaintza, gizarte laguntza eta enpleguaren arloetan.
- Euskaldunok gure historian zehar hainbestetan bilatu behar izan dugun bezala, lan egiteko eta bizitzeko tokia bilatzen ari diren pertsonak integratzea baino ez da.

Kultura Gizarte Estatua osatzeko politiken kateko azken maila da. Bere garrantzia ohiz kanpoko da, gizabanakoak aberasteko, euskal lurraldeen arteko kohesioa lortzeko eta gizarte aurreratuetan ekonomiaren garapena bultzatzeko. Kulturaren aldeko apustua legegintzaldi osoan mantenduko dugu, Kulturaren Euskal Planaren bidez. Plangintza horren ekintzetarako norabideak, honako hauek izango dira: azpiegituren arloa, teknologiak eguneratzea eta kultura sortzea eta sektore horretako industriak bultzatzea.

Euskara, euskal kulturaren emaitza den aldetik, belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun milaka urteko ondarea da.

Euskara guztiona da eta guztion beharra dauka. Euskara komunikazio eta harremanetarako tresna gisa bizirik mantentzea euskal gizarte osoaren erantzukizuna da. Eta Eusko Jaurlaritzaren

betebeharra da, hain zuzen ere, benetako gizarte elebiduna eraikitzeko behar diren ekintza positiborako tresnak, pertsona guztien esku jartzea.

Demokrazian bizi izan garen azken urte hauetan, euskara eta gaztelaniaren koofizialtasuna onetsi da eta, horren ondorioz, gure Autonomi Erkidegoan, bi hizkuntzetako ahulena, euskara alegia, sustatu eta bultzatzeko politika jarri dugu martxan. Eta, horretarako, beti ere errespeturik handienaz jokatu dugu eta alderdi politiko, sindikatu, irakasle, funtzionario eta euskararen aldeko lana egiten duten pertsona ospetsu eta erakundeen arteko akordiorik zabalena bilatu dugu. Horixe da gizarte aurreratuenen ezaugarrietako bat: ahulenen aldeko neurriak hartzen dituztela, baztertuta utzi gabe. Euskara, gaztelania bezala, batzutan oztopo bihur daiteke norbaitentzat. Hala eta guztiz ere, ahal den neurrian, horrelako egoerarik ez egoteko edo konponbideak bilatzeko ahaleginak egin ditugu. Inposaketarik gabe eta malgutasunez jokatu dugu, errealitate soziolinguistikoko ezberdinei egokitzeko. Hori izan da, orain arte, gure jokabidea eta, etorkizunean ere, irizpide berberak mantenduko ditugu.

Edonola ere, prozesu hasi berri honek, oraindik ezin du ziurtatu euskarak bizirik iraungo duenik eta gaurko euskal gizartearen beharrei erantzun egokia emateko hizkuntza gisa erabil daitekeenik euskara.

Horri dagokionez, euskara eremu guztietan sustatzeko konpromisoa mantenduko dugu, Euskadiko egoera soziolinguistikoari egokitutako hizkuntza politika baten bidez, edozein pertsonak gure Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan bizitzeko eskubidea erabiltzeko aukera izan dezan.

Honaino, Eusko Jaurlaritzak aberastasunen sorkuntzan, berrikuntzan, kohesioan eta gizarte integrazioan izango dituen jardueren alderik nabarmenenak aipatu ditut.

Nire hitzaldiaren azken zatian, ezinbestekotzat jotzen ditudan bi arlori buruz hitz egin nahi dut, aurreko horiei zeharka eragingo diotelakoan. Euskadiren kanpo proiektioaz eta herri-baliabideen kudeaketa eraginkorraz ari naiz, hain zuzen ere.

Euskadiren kanpo proiektzioa.

Euskadiren gizarte eraikuntzak ez du bakarrik barruko dimentsioa, kanpoko ere badu.

Ez dugu Euskadi eraiki nahi, itxita eta bere baitan isolatuta dagoela. Munduari irekita ikusi nahi dugu.

Gero eta interdependentzia handiagoa duen mundu globalizatu bateko parte izan nahi dugu. Besteekiko harremanak eta ideiak onartu nahi ditugu, bai, baina gure singularitasun propioa mantenduz.

Horrexegatik, gure kanpo-politikaren bidez, Euskadi, *munduan ezagutarazi* nahi dugu, Euskadiren interesen defentsa eginez eta Euskadiren ohiko baloreen irudi positiboa emanez.

Hori lortzeko, Euskadiren kanpo-politika integrala garatu behar da eta, ondorioz, Erakunde guztiak eta eskuduntza-arlo ezberdinak sartu behar dira bertan. Laburbilduz, Euskadi nazioartean ezagutzetik Euskadi nazioartean onartzera pasatzea da kontua, Euskadi etorkizunari begira dagoela eta nortasun eta izaera propioak dituela ezagutarazteko.

Helburu hori gauzatu ahal izateko, nire ustez ezinbestekoa da **Euskadiren presentzia bultzatzea, euskal interesei eragin diezaieketen Europar Batasuneko eztabaida foro guztietan.** Hau ez da abertzaleon planteamendua, Herriaren aldeko planteamendua baizik; Europar Batasuneko beste Estatuak frogatu dutenez, guztiz normala baita nortasun propioa duten herrialdeek Batasunaren organoetan parte hartzeko aukera izatea.

Halaber, uste dugu behar beharrezkoa dela mugen bi aldeekiko lankidetzaren eraginkor bat garatzea, Europako Batasunean arlo horretan aurrera eramanez diren esperientziei eta arauari jarraituz. Beharrezkoa da Euskadiren benetako errealitatea kanpoan ezagutarazteko tresnak izatea. Zentzu horretan, eta Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen Ordezkaritzaren kasuan bezalaxe, **presentzia zuzena izan nahi dugu Madrilen eta, horretarako, bertan ordezkaritza propioa izateko ahaleginak egingo ditugu.** Gauza bera egingo dugu beste toki eta herrietan ere, gure Erkidegoak arlo guztietan –ekonomian, kulturean edo erakundeetan– dituen interesak defendatu eta sustatzeko egokia dela jotzen dugunean.

Gaur egun eratuta dauden erakundeek edo etorkizunean sor daitezkeenek izango dute ordezkaritza horietan sartzeko aukera, beraien helburua, Euskadiren kultura, ekonomia edo erakundeak kanpoan sustatzea bada. Horien artetik, **Euskadi Erakundea** aipatu nahi dut; Euskadi Erakundea euskara eta euskal kultura sustatzeko eta gure Herriaren errealitatea mundu osoan sakabanaturik dauden gizatalde euskaldunei hurbiltzeko sortuko dugu.

Tresna bat: baliabideen kudeaketa eraginkorra

Orain arte, Gizarte Estatuaren eredu zabal eta aurreratua eraikitzea eramango gaituzten helburuak deskribatu ditut. Hemendik aurrera, baliabideak eta tresnak izango dira gaiak. Hau da, baliabide, administrazio eta politiken eraketari buruz hitz egiteko garaia da.

Gai honetako lehen hausnarketa *zergen* aldetik egin behar da. Eusko Jaurlaritzaren berehalako eginkizuna, Foru Aldundiekin batera, **Kontzertu Ekonomiko** berria negoziatzea izango da.

Gure iritziz, Kontzertu berria zuzendu behar duten printzipioak honako hauek dira: mugagabeko iraupena izatea; arauak egiteko ahalmena finkatu eta garatzea; zerga-figura berriak hitzartzea; beharrezkoak diren lotura puntuak egokitzea; finantza ereduari jarraikortasuna ematea; arbitrajea bideratzeko eta gatazkei konponbidea emateko prozedura ez judizialak ezartzea; eta, azkenik, Kontzertu ekonomikoa marko europarrarekin bateratzea. Printzipio horiek guztiak arrazoizkoak direlakoan nago eta, nire ustez, Eusko Legebiltzarraren adostasun orokorra bereganatu dezakete.

Zerga-politikari dagokionez, gure zerga-sistema garatzen jarraituko dugu, zuzentasuna, nahikotasuna, neutraltasuna, eraginkortasuna eta foru erakunde eta erkidegoaren erakundeen arteko koordinazioa printzipio nagusizat hartuz, bai arauen aldetik, bai zerga-iruzurraren aurkako borrokaren ikuspuntutik.

Izan ere, argi eta garbi esan nahi dut zergak tresnak direla eta, horren ondorioz, gure Herriaren behar ekonomiko eta sozialen zerbitzura egon behar dutela.

Gizarte-eraikuntzarekin dugun konpromisoa serioa da, eta konpromiso hori ahalik eta gehien sendotzeko, proposatu ditugun politika guzti-guztiak batera aztertuko ditugu, euskal sektore publikoaren diseinu globalean sartzeko. Edonola ere, diseinu hori bat

etorriko da Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren zuzenbide europarrekin, eta horretarako, aurrekontuen oreka bilatuko dugu, ekonomiaren koiunturak edo gizartearen beharrek horrela eskatzen dutenean, defizit edo superabiten aukera baztertu gabe.

Zentzu horretan, azaldu behar dizuet ez nagoela bat ere ados, Administrazio Zentralaren Egonkortasunerako Lege-Egitasmoarekin, Administrazio Zentralak Europako erakundeen asmoa erabat itxuraldatu duelako. Madrilgo Gobernuak, urte bakoitzean oreka edo superabita aipatzen du, Europar Batasunak epe erdiko oreka aipatzen duenean. LOAPA penagarri eta famatua da gure autogobernurako eta bere funtzionamendu eraginkorrerako mehatxurik handiena.

Gure administrazioari dagokionez, aurrez aurre dituen erronkak, mundu anglosaxoitik datozkigun bi esamoldetan laburbildu daitezkeela uste dut: lehenik, *itzulpena*; hau da, erakunde maila guztiei subsidiarotasun printzipioaren ezarpen sistematiko gisa ulertua. Bigarrenik, *berrasmaketa*; hau da, hiritarrarentzat baliabide ekonomiko berberetatik balio handiagoa lortzeko helburua duen eskuhartze tresnak hobetzeko eta berriz diseinatzeko prozesua.

Gure *itzulpenaren* ondorioz, protagonismo handiagoa emango diogu toki erakundeei, Udalen Legearen onartuz. Era berean, erakundeen arteko harremanen erreforma onetsiko dugu, Lurralde Historikoen Legea aldatuz. *Itzulpenak*, beraz, kudeaketa eremuak beheko mailetarantz birbanatzea dakar; baina, aldi berean, erakunde orokorrek aitzindaritza eta plangintza ahalmena indartu behar dute, bat datozen ekintzak daudenean, politiken funtzionamendu koordinatua bermatzeko. Horretarako, herri-politiken arlokako koordinazioa bultzatuko da eta Eusko Jaurlaritza, foru aldundi eta udalen ekintzak integratuko dira erakunde arteko partaidetzarako erakunde izango den "Herri-Politiken Euskal Kontseilua"ren bitartez.

Itzulpenak eta subsidiaritasunak Europako Batasunera ere iritsi behar dute. Europako Batasunaren ekintza markoa birdefinitu beharra dago, eta eskualdaketa prozesuak bi norabideetan egin behar dira. Guri eragiten diguten kompetentzia askoren titularrak garenez, Europako Batasunean zuzenean parte hartzeko aukera eta gure autogobernuaren onespena eskatzen ditugu.

Gobernuaren *berrasmaketa* martxan dagoen prozesua da "Comision de Reforma de la Administración Pública-CORAME"ren lanak hasi zirenetik eta Administrazio Publikoa Modernizatzeko Planean jasotako neurriak ezartzen hasi zirenetik. Eta, gure inguruan egon diren aldaketak ikusita, indar handiz jarraitu behar dugu bide horretatik.

Alde batetik, teknologia berrien eraginak, *on line* zerbitzuak emateko era berriak asmatzera behartzen gaitu; beste alde batetik, aldaketak berak eragina dauka giza baliabideetan, eta malgutasuna eta epe erdian sortuko diren beharrei aurre egiteko ahalmena eskatzen ditu; era berean, Kalitatea kudeaketa sistema gisa ezartzea ezinbestekoa izango da. Erronka horiei aurre egiteko, ***on line* administrazioa onartzea erabaki behar dugu** –hasiak gara bide horretan Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren bitartez– eta, beste alde batetik, giza baliabideak planifikatu eta erakunde osoa zerbitzuen ebaluaketan eta Kalitatearen kudeaketan inplikatu behar dugu.

* * * * *

Bukaera:

Nire hitzaldia bukatzeko, azken gogoeta bat egin nahi dut. Interesatutako aurreiritzi eta distorsionatutako ikuspegien aurrean, Euskadiren politika eta gizartea eraikitzeke egitasmoa ez da, inolaz ere, Estatu nazional zaharkituen eraikuntza prozesuen kopia berantiarra. Gaur egun, gero eta gehiago onartzen da Nazio-estatuak joera izan dutela pluraltasuna ukatzeko, aniztasuna demokraziaren aurka kudeatzeko eta hiritarrei homogeneotasuna inposatzeko.

Gure egitasmoaren oinarria, pertsonen askatasunekiko eta kulturen aniztasunekiko errespetua da. Hori derrigorrezkoa da, globalizazio eta kultura-aniztasunaren munduan.

Konpromisoa dugu, eta etorkizunean ere izango dugu, Euskadik, edozein momentutan nahi duen autogobernu maila izan dezan; baina hori, gizabanakoen askatasunean oinarritutako adostasunaren ondorioz irekitako eraikuntza prozesu gisa ulertzen dugu. Ziur nago Euskadi herritarren borondatez sortutakoa izango dela. Horretarako oztopoak jartzen dituenak, berriz ere, indarraren arrazoia eta konkistatzeko eskubidea aplikatuko ditu, arrazoiaren indarra eta

erabakiak askatasunez eta demokratikoki hartzeko eskubidea erabili behar.

Karl Popper-ek *Gizarte irekia eta bere etsaiak* izeneko liburuan, honako hau dio:

“Gatazka bat planteatzen denean, horrek esan nahi du grina eta emoziorik konstruktiboenek –begiruneak, maitasunak, auzi komun batekiko mirespenak, eta abarrek–, hasieran gatazka hori gainditzen lagun bazezaketen ere, arazoa konpontzeko ezintasuna azaldu dutela. Orduan, bi irtenbide besterik ez daude: bata, emozioak eta, azkenik, indarkeria erabiltzea da; bestea, arrazoia, inpartzialtasuna eta arrazoizko konpromisoa erabiltzea da.”

Indarkeria aldenarazteko, bizitza eta giza-eskubideen aldeko konpromiso etikoa proposatu dut. *Elkarrizketa* tresna gisa, hau da, arrazoiaren "erabilpen ez dogmatikoa egiteko" formula bakar gisa, erabiltzeko konpromisoa proposatu dut. Euskal biztanleen erabakiak *errespetatzeko konpromisoa* proposatu dut, inpartzialtasun eta arrazoizko konpromisoaren adierazpen demokratikorik onena delako.

Eta, azkenik, Euskadiren gizarte eraikuntza lortzeko konpromisoa proposatu dut, Euskadi Estatuan eta European erreferentzia eta eredu izan dadin.

Azken batean, etorkizun eta itxaropen egitasmoa proposatu dut, Euskadin, gozatu, lan egin eta bizitzeko arrazoiak ematen dituen Herria bilakatzeko.

Egi bihur daitekeen amets bat proposatu dut eta denon artean egi bihurtu behar dugu.

Eskerrik asko.